

JEAN HARITSCHELHAR

Unibertsitateko irakasle, Baigorriko auzapez, Baionako euskal museoko zuzendari, 50 urte Euskaltzaindian... Bizitza bete bat.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkia: Gaizka Iroz

«Mandomulen aurka balio duen politika bakarra mandomula izatea da»

Sorterriko auzapeza izatea ez omen da lagunak egiteko modu onena...

Zure usteekin koherentea bazara ez duzu lagunak galtzen. Zure usteekin koherente jokatzegatik haserretzen zaizuna ez da laguna. Hori bai, nor bere lurretan profeta izatea...

Orain 50 urte Euskaltzaindian sartzeko profeta baino gehiago izan behar zen!

1968ko Parisko maiatza famatzen du jendeak, nik 1968ko Arantzazuko biltzarra. Hor sortu zen euskara batua, hortik datoz gure lan ildoak. Ordura arte, “eta zuek nola erraiten duzue hori?” zen Euskaltzaindian entzuten nuen galdera bakarra!

Euskaltzaindia euskararen aitzinetik edo gibeletik doa?

Momentuz aitzinetik gabiltza, etengabe bideak irekitzen. Sortzen ari den euskara batua euskara idatzia da, eta ahozkoa zein idatzia erabat sortzean, beste akademiek egiten dutena egin beharko du Euskaltzaindiak: hizkuntzaren aldakortasunari segi eta txertatu.

Ez esan bitartean Euskaltzaindiak hitzak sortu behar dituenik!

Zenbat hitz sortu ditu Euskaltzaindiak? “Arartekoa”, “a bildua” eta gutti gehiago. Hitz berriak euskara erabiltzen dituztenek sortzen dituzte heien beharrak asetzeko, eta akademiak onespina ematen die edo ez. Hori da



hizkuntza osoki tinkatua den seinale. Nik ez dut hori ikusiko, baina helduko gara horra ere.

Ofizialtasunak salbatuko gaituela diote euskaraz bihirik ez dakiten iparraldeko “euskualdu-nek”!

Ez dugu euskararen ofizialtasunik berehalakoan lortuko. Hain dira mandomulak gure jakobinoak! Heien psikologiak frantsesa, frantsesa, eta frantsesa baizik ez du onartzen. Nola konprenitu bertzela halako euskarafobia eta erraiten dituzten astakeriak?

Nik uste nuen zerbait mugitzen ari zela, baina...

Mandomulen aurka balio duen politika bakarra mandomula izatea da! Beharrik, gu ere horretan ez garen txarrak...

Ez gaude etengabe gure dekadentziaren gorean bizitzera kondenatuak, beraz?

Hiru lema ditut bizitzan. Bat, “euskalduna naiz sortzez, frantsesa legeez, eta europarra ametsez”. Bi, “gauden gu eta jo aitzina!”. Hiru, “jasa, baina iraun”. Hor dira gure arazoak erantzun guziak.

Orain, euskara salbatu eta Arestik bizarra moztu beharko duela esaten ari zara?

Zaude segur euskarak iraunen duela. Hori bai, euskara ofiziala izateak ez du arriskuan ez dela erran nahi. ■

